

## **Gurea egin**

Soiñu eta panderua  
hau da euskaldun girua,  
alaia eta berua,  
ez da oraindikan sortu  
hau berdintzeko dirua,  
gaztetasun osoakin  
hauxe litzake zerua.

Gazteak alaituz jarri  
ez det nahi triste nik jarri  
etzagun galdu indarrik  
humore hona jartzeko  
ez degu edan beharrik  
horrela egiten degu  
euskaldun fiñak bakarrik.

Sagardotegin jotzeko  
eta nunahi entzuteko  
festa onena jartzeko  
trikitixa da onena  
gazteak ezkontzeko  
gauza bat bakarrik behar  
hanka onak dantzatzeko.

Orain bukatzen danean  
zuentzako zuzenean  
euskaran alde saiatu  
gaitezen danok lanean  
pozik etorriko naiz ta  
deitu nahi dezutenean.